

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4922

HUTS-ZUZENKETA, honako Legegintzako Dekretu honena: «6/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Egoitzaren Legearen testu bategina onartzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua ezartzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira, 6/2023 Legegintzako Dekretuan, irailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Egoitzaren Legearen testu bategina onartzen duena. Legegintzako Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko urriaren 13an argitaratu zen (196. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Legegintzako Dekretuaren hitzaurrean, 2023/4667 (3/1) orrialdean,

honako hau dioen lekuan:

«Horiek horrela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 4an eginiko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau (...)»

honela esan behar du:

«Horiek horrela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 11n eginiko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau (...)»